

1082/2024 EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 14koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketako errektoreordeak emana. Haren bidez, ikertzaileen lan kontratazioa egiteko hautaketa-prozesurako deia egiten da, jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez honako ikerketa-proiektu hau garatzeko: “SKS 0011-1365-2023-000078”.

2024ko maiatzaren 10ean, Ikerketa Zerbitzuak hautaketa-prozesurako deia egiteko eskatu zuen, ikertzaileak kontratatzeko 1. motako proiektuko lankide doktorea gisa “SKS 0011-1365-2023-000078” ikerketa-proiektuarekin lotutako jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez. Ikerketa-proiektuaren ikertzaile arduraduna Leyre Azpilicueta Fernández De Las Heras da, Ramón y Cajal ikertzailea, Ingeniaritza Elektriko eta Elektronikoaren eta Komunikazio Ingeniaritzaren Sailari atxikia.

Aintzat harturik Giza Baliabideen Zerbitzuaren txosten-proposamena.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak errektoretza-taldearen egitura orokorra onetsi eta bere funtzioak zehazteko 2023ko ekainaren 20an eman zuen 1306/2023 Ebazpenaren bidez eskuordetu dizkidan eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

Lehenbizikoa.- Onestea hautaketa-prozesurako deialdia, ikertzaileen lan kontratazioa egiteko “SKS 0011-1365-2023-000078” ikerketa-proiektuarekin lotutako jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez, baita deialdiaren oinarriak ere.

Bigarrena.- Ebazpen hau Hautaketa Batzordeko kideei eta Ikerketa Zerbitzuari aditzera ematea.

Hirugarrena.- Agindua ematea ebazpen hau Unibertsitatearen iragarki ohol elektronikoan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 14an.

Francisco J. Arregui San Martín
Ikerketako errektoreordea

IKERTZAILEEN LAN KONTRATAZIOA EGITEKO HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA HONAKO IKERKETA-PROIEKTU HAU GARATZEKO: “SKS 0011-1365-2023-000078”

Hauek dira deialdia arautuko duten

OINARRIAK

1.- DATU OROKORRAK

-Deialdiaren xedea: deialdi honen xedea ikertzaileak hautatzea da, ondoren lan kontratazioa egiteko, jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez, ikerketa-proiektu hau garatzeko: “SKS 0011-1365-2023-000078”.

-Maila profesionala: 1. motako proiektuko lankide doktorea, batez ere ikerketa-lanetan aritzeko.

-Eginkizunak: 1.- Bibliografia berrikustea. Material ferromagnetikoei eta materialen nahasketari lotutako artearen egoera, bai eta geometria konplexuak aztertzeko aplikatzekoak diren simulazio teknikena ere.

2.- Elektrodoak eta transmisio-lineak diseinatzea eta simulatzea, substratu malguen gainean. Uhin osoko simulazio elektromagnetikoen bidezko analisia (FDTD, MQS), eta eredu zirkuitalen bidezkoa.

3.- Portaera EMaren azterketa interferentzia-mailan, baita amplifikazio etapak dituen interkonexioaren portaeraren azterketa ere. 3D simulazio EMaren bidezko analisia, eta korronteen/eremuen mapatze mailako karakterizazioak eremu hurbileko zunden bidez, baita kamera anekoikoan erradiatutako eremuen karakterizazioa ere.

4.- Erakusleen karakterizazioa (frekuentziaren eta S parametroen analisia).

-Kontratu mota: jarduera zientifiko-teknikoen kontratuaren modalitatearen bidez egingen da kontratazioa, Zientziari, Teknologiarri eta Berrikuntzari buruzko 2011ko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 23bis artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

-Iraupena: mugagabea, “SKS 0011-1365-2023-000078” ikerketa-proiektuari lotua.

-Lanaldi mota: osoa.

-Ordainsariak: Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikertzaileak Kontratatze Arautegiak bere eranskinean ezarritakoak, 2022. urtera egokituak; arautegi hori 2017ko maiatzaren 3ko Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez onetsi zen, eta 2022ko apirilaren 12ko Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez aldatu.

Diru-gehigarriak ordaintzeko aukera egonen da, proiektuan ezarritako helburuak betez gero. Diru-gehigarri horiek ordaintzeko, proiektuaren arduradunak ordainketa justifikatzen duen azken txosten bat egin beharko du, eta aurrekontuan diru kopuru nahikoa izan beharko da.

-Finantzaketa: Nafarroako Gobernua eta FEDER funtsak.

-Argitaratzeko tokiak: deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz gainera, deialdiarekin lotutako egintza eta ebazpen guztiak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki ohol elektronikoan argitaratuko dira, deialdiari dagokion atalean.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

2.1.- Hautaketa-prozesuan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako herritarra izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa izatea edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiar Estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen batekoa.

Halaber, Espainiako, Europar Batasuneko estatuetakoa eta aipatu nazioarteko itunak aplikatzen diren eremuko estatuetakoa herritartasuna dutenen ezkontideek parte hartzeko aukera dute, betiere zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude; herritartasuna duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere parte hartzeko aukera dute, zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude, baldin eta 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Halaber, aurreko paragrafoetan sartuta ez dauden herrialdeetakoak izan eta Espainian legezko bizilekua duten atzerritarrek administrazio publikoetako lan kontratupeko langile aritzeko aukera izanzen dute. Espainian bizi ez diren atzerritarrek parte hartzeko aukera izanzen dute, betiere parte hartzeko betekizunak betetzen badituzte. Kasu horretan, atzerritarrei buruzko legeek eskatzen dituzten baimenak lortu beharko dituzte kontratazioa egin ahal izateko.

b) 18 urte baino gehiago izatea, eta erretiro adina betea ez izatea.

c) Doktorearen titulazio akademiko ofiziala izatea.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, baliokidetasun-ziurtagiria edo, bestela, homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da.

d) Deialdiko xede diren lanpostuak betetzea galarazten duen gaixotasunik edo muga fisikorik edo psikikorik ez edukitzea.

e) Diziplinako espediente baten ondorioz edozein administrazio publikotako zerbitzutik baztertua ez izatea, eta ez egotea epai irmo baten bidez ezgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

2.2.- Aurreko arauetan ezarri diren baldintzak eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean bete beharko dira, eta kontratazioa egin arte beteko dira.

3.- ESKAERAK

Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea hamar egun baliodunekoa da, deialdia **Nafarroako Aldizkari Ofizialean** argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Hautaketa-prozesu honetarako **inskripzioa telematikoki** egin beharko da, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren goitza elektronikoaren bidez, helbide honetan:

<https://sedeelectronica.unavarra.es/sede/zerbitzu-katalogoa/guztiak/ikertzaileen-hautaprobak>

Lehenik, “**Hasi tramitea**” botoia sakatu behar da.

“**Erantsi fitxategiak**” eremuan, dokumentu hauek erantsi beharko dira lanpostu kategoria bakoitzerako:

- Parte hartzeko eskabidea.
- Nortasun Agiri Nazionalaren, AIZaren edo pasaportearen fotokopia.
- Deialdian eskatzen den tituluaren fotokopia.
- Espediente akademikoaren fotokopia, batez besteko nota zehaztuta.
- Curriculum vitae, norberak egoki jotzen dituen merezimenduen egiaztagiriekin batera.

Parte hartzeko eskabide eredia esteka honetan dago:

<http://www2.unavarra.es/gesadj/registroGeneral/instancias/recursos-humanos/contratacion-personal-investigador.pdf>

4.- IZANGAIEN ONARPENA

4.1.- Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gero, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da, baztertua izateko arrazoa esanez, baztertuen kasuan. Izangai bazterturik ez bada, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda.

4.2.- Hirugarren oinarriak aipatzen dituen dokumentuak ez aurkezteagatik behin-behinean baztertzea galarazi gabe, eskaera epez kanpo aurkeztea edo lehiaketaren bidez lortu nahi den lanpostua betetzeko bete behar diren baldintzak ez betetzea baztertzeko arrazoiak izanen dira, eta, gainera, ezin izanen dira zuzendu.

4.3.- Izangai baztertuek edo zerrendan azaldu ez direnek zilegi dute erreklamazioa egitea eta, akatsen bat badago, akatsak zuzentzea, behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo 5 egun balioduneko epean. Ezartzen den epean baztertuak izateko arrazoa konpontzen ez duten izangaiak behin betiko baztertuko dira, eta ez dute probarik egingen.

4.4.- Erreklamazioak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko epea bukatu eta gero, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

4.5.- Izangaiak hautaketa-prozesuan onartuen zerrendan egoteak edota 6.2 oinarriak aipatzen duen hautaketa-prozesua gaingitu dutenen zerrendan egoteak ez du ekarriko inoiz ere unibertsitateak aitortzea betetzen dituztela deialdiko oinarrietan eskatu diren baldintza orokorrak edo bereziak. Kontratatzeko deitzen dituzten izangaiek ziurtatu eta egiaztatu beharko dituzte horiek, jatorrizko dokumentazioa aurkeztu beharko baitute kontratua sinatzen dutenean.

4.6.- Parte hartzeko eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioarekin alderaturik jatorrizko dokumentazioa okerra edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, kontratua sinatzeko

ezintasuna eta kontratazio zerrendatik baztertzea ekarriko du, interesdunak berak sinatuko duen erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorritik.

5.- HAUTAKETA-PROZESUA

Izangaien merezimenduak baloratuko dira, aurkeztutako dokumentazioarekin bat etorritik eta I. eranskinetako baremoaren arabera.

Izangaiek eskabideak aurkezteko epea bukatzean dituzten merezimenduak bakarrik baloratuko dira, eta gero lortutakoak ez dira kontuan hartuko. Hautaketa Batzordeak inola ere ez du onartuko izangaiek alegatu ez duten edo agirien bidez frogatu ez duten merezimendurik, eta ezin izanen du apartatu bakoitzean adierazitako gehieneko puntuazioa baino handiagorik eman.

Adierazten diren merezimendu guztiak zuzenbidean baliozkoa den edozein baliabideren bidez frogatu behar dira.

Hautaketa Batzordeko kide bakoitzak baloratuko ditu izangaien merezimenduak. Azken puntuazioa izangai bakoitzari emandako puntuazioen batezbestekoa izanen da.

6.- HAUTAKETA-PROZESUAREN EBAZPENA

6.1.- Izangaiek aurkeztutako merezimenduen balorazioa amaitu eta gero, Hautaketa Batzordeak Ikerketako errektoreordeari bidaliko dio hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazioekin.

6.2.- Ikerketako errektoreordeak ebazpena emanen du hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda onesteko, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki ohol elektronikoa argitaratuko da.

6.3.- Deialdi honetan sortzen den kontratazio zerrendak 3 urteko indarraldia edukiko du argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Indarrean dagoen bitartean, kategoria bera eta ia eginkizun berak dituzten langileak kontratatzeke premia sortzen denean ere erabiltzen ahalko da kontratazio zerrenda hori, proiektu, kontratu, hitzarmen edo katedra baterako edo institutuko edo ikerketa-taldeko funtsetarako izan, betiere hurrenkera ordena errespetatuz.

6.4.- Deialdi honen ondoriozko kontratazio zerrendan egonik kontratu bat onartzen duten izangaiei ez zaie beste edozein lanpostutarako kontraturik eskainiko. Dena dela, eskainiko zaie baldin eta kontratua bukatzeko 15 egun edo gutxiago gelditzen badira.

7.- HAUTAKETA-BATZORDEA

Batzordeburua: Francisco Falcone Lanasko doktorea, unibertsitateko katedraduna, Ingeniaritza Elektriko eta Elektronikoaren eta Komunikazio Ingeniaritzaren Sailari atxikia, Ikerketako errektoreordeak delegatuta.

- Idazkaria: Leyre Azpilicueta Fernández De Las Heras doktorea, Ramón y Cajal ikertzailea, Ingeniaritza Elektriko eta Elektronikoaren eta Komunikazio Ingeniaritzaren Sailari atxikia.
- Batzordekidea: Juan Carlos Iriarte Galarregui doktorea, unibertsitateko irakasle titularra, Ingeniaritza Elektriko eta Elektronikoaren eta Komunikazio Ingeniaritzaren Sailari atxikia.

ORDEZKO HAUTAKETA-BATZORDEA

- Batzordeburua: Iñigo Ederra Urzainqui doktorea, unibertsitateko katedraduna, Ingeniaritza Elektriko eta Elektronikoaren eta Komunikazio Ingeniaritzaren Sailari atxikia.
- Idazkaria: Jorge Teniente Vallinas doktorea, unibertsitateko irakasle titularra, Ingeniaritza Elektriko eta Elektronikoaren eta Komunikazio Ingeniaritzaren Sailari atxikia.
- Batzordekidea: Antonio López Martín doktorea, unibertsitateko katedraduna, Ingeniaritza Elektriko eta Elektronikoaren eta Komunikazio Ingeniaritzaren Sailari atxikia.

Hautaketa Batzordearen jarduerak, une oro, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezartzen dutenaren arabera gauzatuko dira. Jakinarazpenak egiteko eta bestelako gorabeheretarako, Hautaketa Batzordearen egoitza Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazioko eta Kudeaketako eraikina izanen da.

8.- DATU PERTSONALEN BABESA

Nafarroako Unibertsitate Publikoak langileen kudeaketaren arloan antolatutako prozesuetan parte hartzeak interesdunen datuak tratatzea ekarriko du berekin. Datu horien tratamenduaren arduraduna Nafarroako Unibertsitate Publikoa da.

Datuen tratamendua aplikatzekoa zaion araudiari jarraikiz egingen da, hots, Datuak Babesteko 2016/679 EB Erregelamendu Orokorrari eta Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz. <http://www.unavarra.es> webgunean argitaratutako Tratamendu Jardueren Erregistroan kontsulta daiteke nola egingen den tratamendu hori, “GIZA BALIABIDEAK” atalean.

Tratatuko diren datuak batez ere hautaketa-prozesuetako izangaiak eta NUPeko langileenak izanen dira; hauek hain zuzen ere: izena, deiturak, NANA, datu akademikoak eta profesionalak eta, beharrezkoa denean, bankuko datuak eta Gizarte Segurantzakoak, edo ondoren deskribatzen den xedea betetzeko beharrezkoak direnak.

Datuen tratamendua justifikatzen duen xedea hau da: hautaketa-prozedurak, mugikortasunekoak, egoera administratiboak, ziurtagiriak, edo Giza Baliabideen arloan NUPen eskumenekoak diren beste batzuk tramitatzea.

Xede horrek interes publikoa edo botere publikoa legitimatzen du, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikulua ezartzen duen bezala. Hauek dira oinarri

juridikoak, langileei buruzko beste arau batzuen artean: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2015eko urriaren 30ekoa, eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzura dauden Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, 1993ko abuztuaren 30ekoa.

Datuak tratatzeko jardueri dagokienez, interesdunek eskubidea dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, haiei kontra egiteko eta transferitzeko. Horretarako, mezu bat bidali behar dute delegado.protecciondatos@unavarra.es helbidera, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren 11. artikulutik 18. artikulura bitartekoei jarraikiz. Desadostasunen bat izanez gero, Datuak Babesteko Espainiar Agentziara jo dezakete, <https://www.aepd.es/> domeinuaren bidez.

9.- ERREKURTSOAK

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, Unibertsitate Sistemari buruzko 2023ko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren 38.4 artikulua xedatzen duenaren arabera, eta zilegi da berraztertze errekurtsa jartzea, errektoreari zuzendua, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsa Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, hilabeteko epean lehenbiziko kasuan, eta bi hilabeteko epean bigarrenean, biak ere ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

I. ERANSKINA

Ikertzaileak hautatzeko baremoa

ERABILIKO DEN BAREMOA ETA/EDO EGINEN DIREN PROBAK	
1. APARTATUA: Espediente akademikoa	Puntuak 30
<p>- Doktoretzaren aurreko titulazioaren espediente akademikoa 10 punturekin baloratuko da gehienez ere, proportzioan. Izangaia lizentziaduna, arkitektoa, ingeniaria edo 300 ECTS edo gehiagoko graduduna bada, 10 puntu bitarte.</p> <p>Izangaiak aurretiazko titulazio bat eta unibertsitate masterra aurkeztuz gero, 10 puntura arte baloratuko da gehienez ere, eta aurretiazko titulazioaren batez besteko notaren % 75 eta masterrenaren % 25 hartuko dira kontuan ponderazioa egiteko.</p> <p>Bi kasuetan, ateratzen den puntuazioa 1 faktorearekin biderkatuko da izangaiaren titulazioa hauetakoren bat baldin bada: Telekomunikazio Ingeniaritza, Telekomunikazioko Ingeniaritza Teknikoa, Telekomunikazioaren Teknologien Ingeniaritzako Gradua edo baliokidea, edo kontratuan jasotzen diren eginbeharrekin lotuta dagoen unibertsitate master bat. Beste titulazio batzuk baldin badira, 0,5 faktorearekin biderkatuko da. Titulazio bakoitza dagokion faktorearekin biderkatuko da.</p> <p>- Karakterizazio erradioelektrikoan, haririk gabeko sistemetan eta diseinu elektromagnetikoan espezializatutako doktoretza izateagatik, 10 puntu emanen dira.</p>	
2. APARTATUA: Aldez aurreko esperientzia gauzatu beharreko jardueretan	Puntuak 10

- Unibertsitateetan edo ikerketa-zentroetan egindako I+G jarduera, proiektuaren xedearekin lotutako gaietan: 0,25 puntu kontratuaren edo bekaren hilabete bakoitzeko, doktoretza aurreko kontratuak barne, eta 6 puntu gehienez ere.

- Aurreko puntuan jaso gabeko lehiaketa-deialdien ikerketa-proiektuetan izandako parte-hartzea, proiektuaren xedearekin lotutako gaietan: 0,25 puntu proiektuan aritutako hilabete bakoitzeko, eta 4 puntu gehienez ere.

Hilabetetik beherako denboraldiei puntuazio proportzionala emanen zaie.

3. APARTATUA: Argitalpenak, biltzarretako ekarpenak eta prestakuntza-ikastaroak	Puntuak	20
--	----------------	----

- Ekarpenen egile izateagatik Clarivate Analytics-en indexatutako aldizkarietan, karakterizazio erradioelektrikoaren, hari gabeko sistemen eta diseinu elektromagnetikoaren arloan:

- JCRko/Scopuseko Q1en indexatutako aldizkarietan egindako ekarpen bakoitza: 3 puntu.

- JRCko/Scopuseko Q2n indexatutako aldizkarietan egindako ekarpen bakoitza: 2 puntu.

- JCRko/Scopuseko gainerako kuartiletan indexatutako aldizkarian egindako ekarpen bakoitza: 1 puntu.

4. APARTATUA: Elkarrizketa pertsonala	Puntuak	10
--	----------------	----

1., 2. eta 3. apartatuen baturan puntuazio handiena lortu duten 3 izangaiei elkarrizketa egingen zaie, betiere 30 puntu lortu badituzte gutxienez.

Elkarrizketan izangaiak kontratuaren xedea betetzeko duen gaitasuna eta eskatutako profila betetzeko duen egokitasuna baloratuko dira.

Hautaketa-prozesua gainditzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa 40 puntu da.

Hautaketa-prozesuaren azken emaitzan gerta daitezkeen berdinketak 1. APARTATUAN puntuazio handiena atera dutenen alde ebatziko dira. Berdinketa badago, 2. APARTATUAN puntuazio handiena lortzen dutenen alde. Berdinketak jarraitzen badu, hautaketa-prozesua zozketaz erabakiko da.